

Asisko gutuna

2011ko urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

36. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Asis Sareak lau printzipiorekin erlazionatu du frantziskotar espiritualtatea. Gutun honen bidez eta hilero, Asis Sareak gogoeta eta otoitz egitea proposatzen du lau horietatik bat angelu ezberdinetatik garatzen duten testuen bidez.

Gutun honen 36. zenbakiarekin hiru urte dira Sare honen hasieratik. Zenbaki honetako gaia laugarren

printzipioari dagokio: “Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi”.

Gai horri “Gure Elizaren” angelutik heltzen zaio, gai hori bereizkuntza oso ezberdin eta are polemikoen objektu delarik. Hil honetako gogoetak Frantziskoren begiradaz, leialtasuna eta berrikuntza integratu zituen begiradaz, so egin nahi dio konplexutasun horri.

Gogoetarako gaia

Gure eliza

Elizaren barruan sentitzen bagara, ezin dugu aski izan kanpotik begirale huts izatearekin. Barrutik bizi behar dugu gertatzen dena. Zein da gure egitekoa, nola esku hartu, zein langunetan jardun, nola bereizi bere hitzak...? Azken batean, nola bizi gaur Eliza.

Ez dugu Eliza perfektua espero. Badakigu bere errealitatea anbiguotasunarekin eta giza mugatasunarekin batera bizi dela. Hala eta guztiz ere, Elizan behar dugu Jainkoaren presentzia bilatu, bera batzuetan garaian garaitik eta Ebanjelioaren Espiritu apaletik urruntzen duten guztitik harat.

Egungo eta garai honetako zeinuak, XXI. mendeko jendearen bilaketa eta sufrimenduen zeinuak, entzuteko gai izango den Eliza baten alde borrokatzea dagokigu guri, nostalgiaz atzera begiratu gabe eta orainari eta geroari beldurrik izan gabe.

Badakigu Berri Onak gaurkoa izaten jarraitzen duela, baita bizi dugun mundu laiko, ateo eta sekularrentzat ere. Hala eta guztiz ere, lanak ditugu hitz sutsu sendatzailea, Kristo bera den eta gure fedearen muin den hitza, azaltzeko modua aurkitzen.

Erantzunaren bila gabiltzala, Frantziskorekin aurkitzen gara. Gizon honek ondo ulertu zuen Elizaren altxorra,

maitatu eta sufritu egin zuen Eliza, haren barruan egin zuen lan ebanjelioko obedientziaren, pobretasunaren eta maitasunaren zentzu sakonetik. Guri gaur, kontraesanez eta mugatasunez beteriko Eliza hau apalki maitatzea dagokigu. Beraren barruan egotea eta sufritzea, testigantza ematea eta hitz argitzailearen bila ibiltzea. Eta batez ere Jainkoagan konfiantza eta itxaropena edukitzea, markatzen dituen bideak Berak jakingo dituela uste izatea, jakin badakigulako, Oseasek esan bezala, Hark gurekin egindako ituna betirako dela. Eta Haren eskuetan jartzea gelditzen zaigu, lanean jarraitzeko eta Haren Eliza zaintzeko.

Gizon honek ulertu zuen Elizaren altxorra, hau da, Jesusen Hitza zaintzea eta eskaintzea. Frantziskok maite izan zuen Eliza, sufritu egin zuen hura, haren alde borrokatu eta berritu egin zuen hura ebanjelioko obedientziatik, pobretasunetik eta maitasunetik. Guri gaur, kontraesanez eta mugatasunez beteriko Eliza hau apalki maitatzea dagokigu. Bere barruan egotea eta berarekin sufritzea; baina baita borrokatzea eta xume eta gertuko denetik testigantza kritiko izatea ere, eta hitz argitzailearen bila ibiltzea.

Ebanjelioko pasartea: Jn 17,14-24

«Zure mezua adierazi diet nik; baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako, neu ere mundukoa ez naizen bezala. Ez dizut eskatzen mundutik ateratzeko, Gaiztoarengandik babesteko baizik. Ez dira mundukoak, neu ere mundukoa ez naizen bezala. Har itzazu zeuretzat egia bidez: zure mezua egia da. Mundura bidali ditut, zuk bidali ninduzun bezala. Eta hauengatik ematen dizut erabat neure burua, hauek ere egia bidez zeuretzat har ditzazun.

«Ez dut erregutzen hauen alde bakarrik, baita berauen predikuaren bidez niregan sinetsiko dutenen alde ere. Egizu guztiak bat izan daitezela. Aita, zu nirekin eta ni

zurekin biok bat garen bezala, hauek ere bat izan daitezela gurekin. Horrela, munduak sinetsiko du zuk bidali nauzula. Zuk eman zenidan aintza bera eman diet nik, bat izan daitezen, gu biok bat garen bezala: ni hauekin bat eta zu nirekin bat. Horrela, guztiz bat izango dira, eta munduak ezagutu ahal izango du zuk bidali nauzula eta ni neu maitatu nauzun bezala maitatu dituzula berauek ere. Aita, zuk eman dizkidazunak ni nagoen lekuan nirekin egotea nahi dut, nire aintza, mundua sortu aurretik maite izan nauzulako eman didazun aintza, ikus dezaten.

Frantziskotar espiritualtasuna

“Arantza txeratsua Elizarentzat”, horrela definitu zuen norbaitek Asisko Frantzisko bere Elizarekiko harremanean. Frantzisko atzo, gu gaur bezala, ondo konturatzen zen bere garaiko kleroaren bekatuez eta ahuleziez eta, hala eta guztiz ere, inoiz inon inola ez da ageri harengan kexa bat, protesta bat, lantu bat Elizarengatik, ezagutzen, maitatzen eta eraikitzen zuen Elizarengatik.

Frantziskoren hitza, bizitza eta jarduera ez ziren izan Eliza erakundearen kontrako protesta bat, norbaitzuk sinestarazi nahi izan diguten bezala; ez eta beti eta denean mendekotasun ere, besterik gabe, Elizaren irizpen guztiei, beste batzuk ikusaraz nahi izan diguten bezala. Bere Eliza bereizkuntzaz sostengatzea eta eraikitzea izan zen Frantziskoren Elizarenganako jarrera, bertan eliz-elkartasuna bizi eta sostengatuz, baina ebanjelikoak iruditzen ez zitzaizkion bideetatik aldenduz, eta beti Eliza ebanjeliora eta Jesukristorengana eta senidetasun handiagora animatuz, ohartaraziz eta bultzatuz.

Frantzisko, besterik gabe, arantza txeratsua izan zen Elizan. Arantza, bere bizitza-aukerekkin gogorarazi egin ziolako Elizari bere bekatua eta zein zen ebanjelioaren bidea, zenbaitek behin baino gehiagotan albora uzten zutena. Txeratsua, guzti hori txeraz, maitez egin zuelako, seme-alabek beren amarekin bezala: hura maitatuz, hari konpainia eginenez, hura eraikiz, hura utzi eta kritikatu gabe.

Behartsuaren otoitza

Elizaren aldeko otoitza
Jauna, eskerrak ematen dizkizugu Elizagatik,
Elizan ebanjelioa eta Jesusen arnasa ematen
diguten guztiengatik;
maite dugu zure Eliza, Jauna, eta berarekin
elkartasunean bizi nahi dugu;
Eraiki egin nahi dugu hura geure hitzaz,
geure bizitzaz, geure testigantzaz.
Maite dugu zure Eliza.
Eta maite dugulako eskatzen dizugu,
izan dadila topaketa eta zerbitzurako gune,

libertate eta itxaropenari eginiko kantu,
barkamenaren etengabeko ospakizun,
pobre eta baztertuentzat sutondo,
adiskidantzarako esku luzatu,
ogia banatzeko mahai.
Elizaren alde, bai, egiten dizugu otoitz;
izan dadila egi eta maitasun toki,
askatasun, justizia eta bake toki,
denek berarengan itxaroten jarraitzeko
arrazoia aurki dezaten.

Gutuneko azken hitzak

“Itxaropena ez da dena ondo aterako delako segurtasuna edukitzea, baizik eta zentzua baduelako segurtasuna edukitzea, emaitzaz arduratzen ez garelarik” (Václav Havel)

2011ko azaroko eguneroko ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaien arabera, hemen dauzkate azaroko erreferentzia guztiak:

1 Mt 5,1-12 ^a	7 Lk 17,1-6	13 Mt 25,14-30	19 Lk 20,27-40	25 Lk 21,29-33
2 Mk 15,33-39;16,1-6	8 Lk 17,7-10	14 Lk 18,35-43	20 Mt 25,31-46	26 Lk 21,34-36
3 Lk 15,1-10	9 Jn 2,13-22	15 Lk 19,1-10	21 Lk 21,1-4	27 Mk 13,33-37
4 Lk 16,1-8	10 Lk 17,20-25	16 Lk 19,11-28	22 Lk 21,5-11	28 Mt 8,5-11
5 Lk 16,9-15	11 Lk 17,26-37	17 Lk 19,41-44	23 Lk 21,12-19	29 Lk 10,21-24
6 Mt 25,1-13	12 Lk 18,1-8	18 Lk 19,45-48	24 Lk 21,20-28	30 Mt 4,18-22

Geure web gunea bisitatu

www.asissarea.org



Asis Sarea

646 21 48 96

Asisko Gutunaz, bakarka nahiz taldean lan egiteko iradokizunak

Asisko gutuna

2011ko urria. 4. printzipioa. Bidea elkarrekin egin,

anaitasunez bizi

36. zenbakia

“Bide hau elkarrekin egin, senidetasunean bizi” dioen laugarren printzipiora itzuliz, honako gai hau eskaintzen zaigu gogoetarako: Gure Eliza. Gai benetan inportantea eta eztabaidatua hauxe gure sinestun-bizitzan, fedean senide ditugunekin batean bidea egiten dugun bitartean.

Gure Eliza

Zaila da beti Elizaren gaia lantzea, baina ahaleginak egingo ditugu berari ikuspuntu positibotik ekiten, jakinik ere Elizan ez dela dena guk nahi genukeen bezala, eta kontuan harturik beti Eliza bekataria dela gutako bakoitzaren antzera. Gure familietan ere ez ditugu gauza guztiak gustuko, baina hala ere geure egiten ditugu eta beroriek maitatzen saiatzen gara; gauza bera egingo dugu gure Elizarekin ere.

Hasteko galdera hau egiten diogu geure buruari: Eliza al naiz? Baina ez arrazoituz eta dakidanetik, bihotzetik baizik. Eliza sentitzen naiz?

Eta, zergatik bai edo zergatik ez?

Ez gaitzezen gelditu egitura edo zerbitzuen axaleko mailan, barruago joango gara aurkikuntza hau egin nahian: Elizaren erdi-erdian Jainkoaren bihotza dagoela, zeren eta Jainkoa baita bizirik eusten diona, nahiz eta askotan iruditzen zaigun ez dagoela zer eginik.

Horrez gain berriz begiratu dugu geure bizitzan, zer eman digun Elizak. Seguruenik asko lanak emango dizkigu izenak emateak, baina egin dezagun ahalegina: sakramentuak, senideak, besteei emanak bizitu diren pertsona bikainen etsenplua eta, guztiaren gainera, Jainkoaren hitza.

Gai hau lantzean ez gaitzezen teoriatan gelditu. Galdera zehatzak egingo dizkiogu geure buruari: zer egin dezaket Eliza honen alde? Non lan egin dezaket? Behetik eta barrutik lan egitea egokituko zaigu; horregatik ez ditzagun indarrak kanpotik kritikatzeko gal, zeren eta horrek lehenen gu geuri egiten digu kalte.

Izan dezagun adore eta maita dezagun Eliza, Jainkoa leiala dugulako itxaropenarekin lan eginez; gu Haren esku gara Harekin elkarlanean Eliza egiteko; hori bai Jesusek maiteen zituenei, pobre eta baztertuak, gehiago begiratu dien Eliza, ez bere buruari begira dagoena.

“... baina munduak gorroto die, mundukoak ez direlako ...”

Ebanjelioko testuan entzun ditugun hitzak zailak dira ulertzeko, baina guretzat aldeko direnak. Jesusek gure alde eskatzen dio Aitari babes gaitzan; baina ezin gara eskuak gurutzatuta gelditu; Aitak bere babesean gauzka eta Jesusek mundura bidaltzen gaitu, bere hitza bila dabilzane, eta hura entzuteko premia dutenei, ematera.

Non eman dezaket hartu dudana hitz hori? Familian, lantegian, kalean...

Bat izan gaitzezen eskatzen dio Jesusek Aitari, eta zein urrutitaz gaitzespenetan! Kritikatan, gaitzespenetan eta botere nahian gaitzen gara.

Hil honetan zehar eska diezaiozun Aitari, egin gaitzala bat, guretzat ezinezkoa baita bat izatea.

“Arantza txeratsua Elizarentzat”

Frantziskok etsenplu izan behar du Elizan egiten dugun bizitzarako. Ez zatorren bat bere garaian Elizan gertatzen ziren gauza askorekin, baina ez zen kritikan jardun besterik gabe, lanean baizik, hura ebanjelioaren mezura, berak leialki jarraitu nahi izan zuenera, geroz gehiago hurbiltzen saiatuz.

Bila dezagun guk ere, non izan gaitzezen arantza txeratsua hori, gustatzen ez zaiguna aldatzen saiatuz, baina beti maitasunetik, eta beti Jesus piztuarengan fede bera dugun senide garelako jakinez.

Jauna, eskerrak ematen dizkizugu zure Elizagatik

Hil honetan zehar Elizaren aldeko otoitzaz egingo dugu erregu; eskerrak emango dizkiogu Jainkoari haren alde, zeren eta Elizarik gabe galduta geundeke munduan zehar noraezean, munduan bizituz baina munduari emanak egon gabe.